


JAKINGARRIAK

DOKUMENTAZIO ZENTRUA 0-7 urte - IRAKASLE ESKOLA - Eskoriatza



HAUR-ESKOLAK 0-3 URTE

**EGUNEROKO KOADERNOA,
GURASOEKIKO HARREMANEN ESPERIENTZIA BAT
HAUR-ESKOLETAN**

Oiartzungo Iturburu Haur-eskola

EGOKITZAPEN-ALDIA HAUR-ESKOLAN

«Miguel de Cervantes» Ikastetxe Publikoa Gasteiz

15. ZENBAKIA

1990eko OTSAILA

JAKINGARRIAK

«JAKINGARRIAK» ZER DA?

«JAKINGARRIAK» Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio-Zentruko informazio-tresna da: bai Dokumentazio-Zentruak jasoten eta egiten dituen materialen berri emateko tresna eta bai informazio bibliografikoa emateko ere.

D. Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu diren baliabideak erizpide batzuen arabera izan dira aukeratuak:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak.
- Komunikaziorako eta elkarekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta D. Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, Hizkuntzaren didaktikarena, hain zuzen; arlo honen barruak erreziklaiaren inguruan bildutako hainbat material dago, baita Euskara-koordinatzailearekin elkarlanean sortutakoak eta bildutakoak ere.

«JAKINGARRIAK» aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Liburutegi-zerbitzua: Zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin liteke.
- Fotokopiak: Artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.
- Baliabideen mailegua: Zerbitzu honen bidez zenbait material eskaintzen da:
 - Diapositibak
 - Bideoak
 - ...

D. Zentrua Eskoriatzako Irakasle Eskolan dago kokatuta. Asteartetan egoten da irekita arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.

Arduradunak:

Irakasle Eskola: Nerea Alzola
Mariam Bilbatua

Euskara-Teknikaria: Resu Abasolo

(Oharra: Komenigarria da etorri nahi dutenek aurrez abisatzea)

JAKINGARRIAK

15. ALE HONETAN

AURKITUKO DITUZUN INFORMAZIOAK

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

- **Liburu berrien albisteak**

SELMÍ, Lucia; TURRIONI, Anna.

«La escuela infantil a los cinco años»

- **Itzulpenak**

Parent Ives

«La biblioteca, sentido y modo de empleo» (1)

«Cómo montar una biblioteca en la escuela infantil» (2)

«La biblioteca, sentido y modo de empleo» (3)

- **Aldizkarietako zenbait artikuluren erreferentzia laburrak eta batzuen itzulpenak.**

Itzulpenak

Valles Gene, Jordi

«Los diferentes ritmos de aprendizaje del número»

GAI MONOGRAFIKOAK

Haur-eskolak [0-3 urte]

ESKOLETAKO ESPERIENTZIAK

Eguneroko koaderno, gurasoekiko harremanen esperientzia bat haur-eskoletan.

Oiartzungo Iturburu Haur-eskola

«Egokipen - aldia Haur-eskolan»

Miguel de Cervantes Ikastetxe Publikoa Gasteiz.

BALIABIDEAK

Hizkuntza lantzeko salgai dauden hainbat jostailuren berri.

LIBURU BERRIEN ALBISTEAK



SELMI, Lucia; TURRINI, Anna
«La escuela infantil a los cinco años»
M.E.C. Morata, Madrid 1989. 252 or.
Modenako Udaleko Haurreskolan
egindako Proiektuari buruz 3. alea

heldu zaigu (Lehenengo bi aleen komentarioa ikusteko: Jakingarriak 13, 1989ko ekaina).

Liburu hau besteen jarraipena dugu, Haurreskolako etapa osatu nahian eta globaltasuna emanez.

Autoreek printzipio berdinak azpimarratzen dituzte: haurren protagonismoa, eskolako planifikazio orekatuaren beharra, programazioaren funtzionaltasuna, hezkuntza proiektua egiterakoan testuinguruaren garrantzia, kalitatezko hezkuntzaren beharra eta irakasleen oinarrizko papera. Planifikazioa hilabeteka banatuta dago, batez ere irakurleek haurren garapena eta ekipoaren jarraipena ahal izateko.

Liburu honetan, 5 urteko haurrentzako hezkuntzaren kalitatearen exigentzia asko azpimarratzen da: haurren produkzio guztien garrantzia, haurren adierazpide desberdinen funtzioa, ingurunearekiko harremanak, irakasleen «gidari» funtzioa, arlo desberdinen garrantzia eta oreka, etab.

Hiru liburu hauetan Haurreskola bere osotasunean ikusten da, argi eta garbi puntu hauek azalduz: irakasleen prestakuntza, koordinazioa eta sentsibilitatea; jarraipenaren beharra programazioetan, testuinguruaren eragina eta haurren garapenaren legeak, eritmoak eta beharrak. Haurreskolako irakasleentzat kontsulta-liburu baliagarritzat har daitezke.

ITZULPENAK

PARENT, Yves

«Les BCD: raisons d'être et mode d'emploi»

L'Ecole Maternelle 1, 1989.eko urria.
63-64 orr.

«La Biblioteca: sentido y modo de empleo»

PARENT, Yves

«Les BCD: Raisons d'être et mode d'emploi».

L'Ecole Maternelle 4, 1989.eko urtarria
61-62 orr.


«La Biblioteca: sentido y modo de empleo»

Irakurle ez denak «irakurriz» ikasten duela irakurtzen pentsatzen badugu, biblioteka derrigorrezko tresna da. Honela dio hiru artikulu hauen sarre-rak.

Printzipio hau onartuz, hiru artikuluek elementu hauek aztertuko dituzte, beti Haurreskolaren testuinguruan (nahiz eta beste ziklo batzuetan ere aplikagarriak izan).


Nola muntatu eta garatu Haur-Biblioteka

- Oinarrizko printzipioak
- Irakurketaren eta idazketaren garrantzia
- Bibliotekaren funtzioa
- Bibliotekaren antolaketa (liburu sailkapena, espazioa, etab.)
- Liburuaren garrantzia eta aukeraketa.



ALDIZKARIAK

CUADERNOS DE PEDAGOGIA



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 175, 1989.eko azaroa

Díez, M.C., «Te quiero Alejandra», 30-31 orr.
Haurreskolan sortzen diren bikotetxoak eta «nobio»ak, haurren afektibitate eta sozializazioaren egoera adierazgarri eta lagungarriak dira.

Urios, R.; Fos, P. «Los juegos en el parvulario» 32-33 orr.
Baserrira irteera egin ondoren, zenbatzeko, memoria garatzeko, ...haurrek jolas batzuk asmatzen dituzte gelan.

Coletto, M. «Jugando con la música» 40-41 orr.
Vivaldiren musika entzutearen aberastasuna.

Gómez, L.A.; Serra, E. «Sobre la salud mental de los profesores» 60-65 orr.
Irakasleen egonezinari buruz Valentzian egindako ikerketa baten emaitzak.




CUADERNOS DE PEDAGOGIA 176, 1989ko Abendua

Ibáñez, C. «El niño de tres años en la escuela infantil» 26-28 orr.

Colectivo «Salida al bosque», 29-32 orr.
Lau urtetako haurren irteera konkretu baten helburuak eta antolaketa.

Segura, C. «El fondo del mar», 33-34 orr.
«Itsasoaren hondoa» gaia lantzeko hondartzara egin den irteera baten azalpena.

L'ECOLE MATERNELLE



L'ECOLE MATERNELLE 1, sep-oct. 1989

- Soinketa
Lefevre, A.M.; Dubief, G.; «Education physique: projet de classe, projet d'école», 25-30 orr.
- Matematika
Winther, M., «Création d'un jeu de dominos», 39-40 orr.
- Esperientzi arloa
Boucher, M.J., Cresson-Frigola, G., «L'air dans le vecu d'une classe», 41-42 orr.
Batzu, «Des connaissances anatomiques spontanées a la découverte scientifique du corps», 43-44 orr.
- Gelako antolaketa
Billon, M.C.; Ferrand, M.F., «Une année en classe maternelle rurale», 47-48 orr.
- Dantza
Podak, S., «Bases théoriques our une danse naturelle et libérale», 53-54 orr.
- Musika
Polonovski, C., «La musique: un langage. Le chant», 59-60 orr.



L'ÉCOLE MATERNELLE 2, Novembre 1989

• Soinketa

Lefevre, A.M.; Dubief, G.; «Motricité de locomotion: se déplacer sur des bancs», 25-26 orr.

«Motricité de manipulation: manipuler des objets mobiles», 27-28 orr.

«Motricité d'expression et de communication: jouer ensemble», 29-30 orr.

• Matematika

Winther, M., «Le changement de place», 39-40 orr.

• Esperientzi arloa

Boucher, M.J.; Cresson-Frigola, G.; «L'air en mouvement: notre respiration», 41-42 orr.

Batzu, «Connaissances anatomiques spontanées des enfants: Maîtresse, j'ai mal au ventre», 43-44 orr.

• Gelako antolaketa

Billon, M.C.; Ferrand, M.F.; «L'organisation spatiale de classe», 47-48 orr.

• Plastika

Tinard, O., «La trace-empreinte», 55-58 orr.

• Musika

Polonovski, G., «La chorale», 61-62 orr.



L'ÉCOLE MATERNELLE 3, décembre 1989

Gauthier, M.T., «Des classes d'enfants handicapés à l'école maternelle», 2-5 orr.

Fotfus, D., «Lire des images... écouter lire», 14-15 orr.

• Soinketa

Lefevre, A.M.; Dubief, G.; «Motricité de locomotion» (3 fitxa), 25-30 orr.

• Matematika

Winther, M., «Le jeu des 'cadeaux'», 39-40 orr.

• Esperientzi arloa

Boucher, M.J.; Cresson-Frigola, G.; «La force du souffle de notre respiration», 41-42 orr.


• Dantza

Bodak, S., «Emergence: 'agrandir'», 53-54 orr.

• Musika

Polonovski, C., «La voix», 61-62 orr.

INFANCIA



INFANCIA 50, 1989.eko iraila-urria

Pujol, J. «Senyo, qué és la tardor?» 4-8 orr.

Udazkena, globalizatzeko gai egokia da. Baina, zer da globalizatzea?

Ferrer, I. «Sentir? Escoltar?» 10-11 orr.


Entzun, adi egon... biak dira garrantzizkoak: ingurunearekik, harremanetarako, aho hizkuntzarako...

Majem, M.T. «Audició musical. Una experiència en el grup de lactants». 12-16 orr.

Musikaren garrantzia, haurtzaindegian. Esperientzia bat.

Vallés, J. «Els diferents ritmes de l'aprenentatge del nombre. De qui, del nen o de l'adult?». 25-26 orr.

Noiz eta nola ikasi «zenbakia» kontzeptua.



INFANCIA 51. 1989.eko azaroa-abendua

Schaffer, R. «La millor manera d'educar». 4-8 orr.
Haurreskolari buruzko hainbat ikerketaren azaldu izan diren konklusioen artean harremanen garrantzia agertzen da. Autoreak, faktore hau aztertzen du.

Majem, M.T. «La cançó en el grup de lactants» 9-14 orr.
10-15 hilabeteko haurrentzat abestiaren garrantzia eta funtzioa, didaktika eta materiala. Esperientzia konkretu baten azalpena.

Diez, M.C. «Amb les persianes obertes» 16-18 orr.
Haurreskolak zentru irekia izan behar du... Autoreak hainbat ekintza, ideia... proposatzen ditu, eskola ingurunean integra dadin.

Coordinadora Catalana al servei de l'infant «La convenció sobre els drets de l'infant. Cinquanta-quatre articles». 21-24 orr.

Goldberger, J. «Infants hospitalizats. Estudi dels riscos per a un desenvolupament normal en lactants i nens petits». 29-34 orr.

Haur gaixo eta ospitalizatuen gaia nahiko ahaztuta daukagu. Artikulu honetan, autoreak gai honetaz 3 arlo aztertzen ditu: ospitaletako egoera (haurrekiko harremanak, kondizioak, ...), egoera honen eragina haurren garapenean eta gai honi irtenbideak aurkitzeko, estrategiak.

Gardini, L. «Posar els nens al llit» 33-36 orr.
Haurra oheratzea esperientzia konplexua da. Autoreak, esperientzia honetan parte hartzen duen hainbat faktore aztertzen du.

Rapisardi, G.; Donzelli, G.P. «El son dels nens i les preocupacions dels pares» 37-40 orr.
Haurren loa, arazoak, faktoreak, gurasoen kezka, ...

ISILIK



ISILIK aldizkaria, 11. 1989

Gai monografikoa: «Erdaldunak murgiltze-sistemaz euskalduntzen».

Murgiltze edo inmertsio-eredu honek proposatzen duen bidea irakaskuntza euskara hutsean ematea da.

Gai honen inguruko aportazio teorikoak eta zenbait ekarpen praktiko ere jasotzen da aldizkari honetan.

Nahiz eta artikulu guztiak 0-7 urte bitarteko adin honi begira ez egon, interesgarria ikusten dugu bertan agertzen diren hainbat artikuluren berri ematea. Jarraian agertzen dira «ISILIK» ale honetan aurki ditzakezun artikuluek.

ISILIK

AURKIBIDEA

EDITORIALA	4
HIZKUNTZAK IKASTEKO MURGILTZE METODOA	5
EUSKARA ETA MURGILTZE SISTEMA	7
ELEBITASUNA GARUNEAN	11
EUSKAL IRAKASKUNTZAN, MURGILTZE SISTEMA BABES JURIDIKO-POLITIKORIK GABE	14
HIZKUNTZ - INMERSIO EGITARAUAK KATALUNIAN	16
HEZIKETA BEREZIA, EUSKARAZ ZERGATIK EZ?	18
ELKARRIZKETA. ERDALDUNAK MURGILEAN EUSKALDUNTZEN	20
ERDALERRIA EUSKALDUNTZEKO ESKOLA. LIZARRA IKASTOLA	24
PAZ ZIGANDA IKASTOLA ETA HAUR ERDALDUNEN EUSKALDUNTZEA	26
EUSKARA 2. HIZKUNTZA DENEAN. Kanpazar Eskola Publikoko esperientzia	32
KILOMETROAK 85 ÍNGURUAN EGINDAKO IKERKETA	37
ELEBITASUNA EUSKAL HERRIAN: IKERKETA BATEN INGURUAN	38
BIBLIOGRAFIA. Liburuen laburpena	40

HAUR-ESKOLAK

Lan honen prestaketarako honako Haur-Eskolek hartu dute parte:

Arrasateko Umezaintza
Hernaniko Langile Haur-Eskola
Oiartzungo Iturburu Haur-Eskola
Zarautzeko Haur-Eskola



En este tema monográfico se presentan unas pequeñas reflexiones sobre la escuela infantil (0-3 años) así como una bibliografía básica sobre el tema

Hasiera batean, Haur-Eskolak, emakume langileen beharrei erantzun bat emateko sortuak izan ziren arren, hauen izaerak bilakaera izan du hezkuntza-zentru bihurtu arte. Orain, Haur-Eskolek duten helburu nagusia, umeei nortasunaren garapen harmonikoa (soziala, afektiboa, intelektuala, fisikoa) lortzen laguntzea da.

Haur-Eskolen helburua, beraz, ez da umeak zaintzea gurasoek lan egiten duten bitartean, baizik eta txikienei, beren garapenerako esperientzia batzuk aurkeztea, hauek, etxean bizitako esperientzien gehigarri eta lagungarri direlarik.

Familiak nahiz Haur-Eskolak, biek helburu berdinak dituzte, alegia, zenbait hezkuntz esperientziaren bi-

dez, umeen garapen psikologikoa lagundu, gidatu eta piztea, garapen integrala izan dezan.

Helburu hau ez da lortzen umeak elkarrekin edo nagusiarekin egotean, baizik eta Haur-Eskoletan, profesional espezializatuen bidez; eta garapen harmoniko hori lortzen umeei laguntzeko, aktibitateak eta esperientziak antolatzen dira, eta espazio, material eta giro egokia ematen dira, ondo zuzendutako zenbait ikaskuntza-prozesuren bidez, garapena estimulatua izan dadin.

Beste aldetik, egokitzen, eta giza ingurunean sortzen diren desegokitze horiek nibelatzen ere lagun lezake Haur-Eskolak, modu eraginkorrean. Horrela, Haur-Eskolak umeen ahal-

menak bizten ditu, eta gero garbiago ager daitezkeen zailtasunez oharertzen gaitu.

Halaber, adin bereko neska-mutikoen elkarbizitza ahalbidetzen du, eta honek, sexuen berdintasuna eta elkarren ezagupena lortzen laguntzen du.

Prozesu honek aurrera jarrai dezan, beharrezkoa da hezkuntz etapa honetan lanean diharduten profesional guztiak baldintza egokietan lan egitea, bai ratioiei bai lan-orduei dagoeneko.

Ratioak hartzen baditugu kontutan, honako hauek dira egokiak:

- Sehasketako taldean (0-9 urte) 5 haur
- Arrastakakoen taldean (9-18 urte) 6 haur
- Ertainen taldean (18-24 urte) 8 haur
- Handien taldean (24-36 urte) 12 haur

Kontutan hartu behar den beste gai bat, haur bakoitzak eskolan pasatzen duen denboraldia da, guztira (bazkaria eta loa barne direlarik) ez bait litzateke komenigarria 7-8 ordutatik pasatzea.

Bibliografia:

BALAGUER, I. «Psicopedagogía del niño de 0-36 meses», Rosa Sensat. Barcelona, 1980.

Ikuspegi psikopedagogikotik begiratzuz planteatzen da zer den haurra, nola behar den hezi eta azkenik nola antolatu behar den Haur-Eskola.

BRUNER, J. «El habla del niño», Paidós. Barcelona 1986

Liburu honetan, komunikazioan haurrak ematen dituen lehen urratsak aztertzen dira, hau da, zerbait transmititzen (komunikatzen) hasten den momentutik ahozko mintzairaren ezagutzaren lehen pausuetaraino.

Eta horietan nolako interakzioa dagoen aztertzerakoan, beti portaera berdintsua aurkitzen du, «formatoa» deritzona; eta formato horretan zenbait mekanismo sartzen da, ikaskuntza-prozesua bultzatzeko balio dutenak.

Ezkutaketa, kuku-jolasa, liburu-irakurketa, etab., ikuspegi honetatik aztertzen ditu.

PIAGET, J. «El nacimiento de la inteligencia en el niño». Aguilar, Madrid 1982.

Asimilazio-, akomodazio-, eta adaptazio-mekanismoen bitartez, adimenaren sorkuntza adierazten digu egileak, lehen erreflexuetatik 2 urtera arte, sentitze-mugitzezko adimena, alegia.

PIAGET, J. «La formación del símbolo en el niño». Fondo de Cultura Económica, México, 1982.

Pentsamendu aurreoperazionala aztertzen da. Imitazio (akomodazio) eta jolasaren (asimilazioaren) azterbidea egin eta gero, sentitze-mugitzezko adimenetik operazionalera ematen den garapenean sakontzen da, hemen errepresentazio kognoszitiboaren sorkuntza aztertuz.

REICH, W.; SCHMIDT, V.; «Psicoanálisis y educación 1». Anagrama. Barcelona 1980.

Printzipio psikoanalitikoak hezkuntz arlora aplikatzen dira. Azpimarratzekoa da «sublimazioari» ematen zaion garrantzia; honen bidez, haurraren garapena aberatsagoa izaten laguntzen bait du.

SPITZ, R. «El primer año de la vida del niño». Aguilar. Madrid 1977

Haurraren bizitzako lehenengo urtearen ikuspegi psikoanalitiko bat. Hasieran sarrera teoriko bat egiten du eta ondoren honako gai hauek jorratzen ditu beste batzuren artean: haurpsikismoaren plastizitatea, instintuen eginkizuna eta eboluzioa, komunikazioaren hasiera eta maitasun faltazko trastornoak.

STAMBAK, M. y otros; «Los bebés entre ellos». Gedisa. Barcelona 1984

Haur-Eskoletan egoera ezberdinetan ematen diren haurren harremanak aztertzen dira, honetarako, bitarteko zientifikoak erabiliz: behaketa, ...

Beste hainbat liburu eta artikulu...

AGIRRE, J. (1987). «Osasunbideak» Elkar, Donostia.

***ALAVA, M.J.; PALACIOS, P.;** (1983), «Es feliz un niño en la guardería?», Narcea, Madrid.

BATZU (1984); «Avec les deux ans», F. Nathan, Paris.

BOWLBY, J., (1976); «La separación afectiva». Paidós. Buenos Aires.

BOWLBY, J. (1976); «El vínculo afectivo»; Paidós, Buenos Aires.

COHEN, R. (1983); «En defensa del aprendizaje precoz». Planeta

ESC. BRESSOL «EL CAR VOL» (1986); «On est? El nen petit busca el mestre.», Patr. Munic. Guuarderies Barcelona, Barcelona.

FRANCO, T. (1988); «Vida afectiva y educación infantil». Narcea, Madrid.

GOLDSCHMIED, E. (1981); «El niño en la guardería, reforma de la escuela, Barcelona.

JIMENEZ, N. (1980); «L'alimentació del nen petit a l'escola bressol» Rosa Sensat, Barcelona.

JIMENEZ, N.; MOLINA, L. (1989); «La escuela infantil. Lugar de acción y de cooperación». Laia, Barcelona.

LAGUIA, M.J.; VIDAL, C. (1987); «Rincones de actividad en la escuela infantil». Gráo, Barcelona.

LEZINE, I. (1974). «Psychopédagogie du premier âge». P.U.F., Paris.

LEZINE, I. (1979). «La primera infancia». Gedisa, Barcelona

***ODENA, P.** (1987); «L'infant i l'escola bressol» Rosa Sensat. Barcelona.

ROSENBLUTH, D.; (1981); «Su bebé» Paidós, Barcelona.

ROSENBLUTH, D.; (1981); «Su hijo de dos años», Paidós, Barcelona.

ROSENBLUTH, D.; (1981); «Su hijo de 3 años»; Paidós, Barcelona

RICCI, G.; TONUCCI, F.; (1981) «El primer año de nuestro hijo» Reforma de la Escuela, Barcelona 1981.

RICCI, G.; TONUCCI, F.; (1989); «Girona VI Congrès de la Coordinadora Estatal d'Escoles Infantils. Conclusions Generals», Infancia 47; 44-45 orr.

BALAGUER, I. (1989); «Qualitat de l'educació a l'escola bressol». Infancia 48. 9-11 orr.

BATZU (1989); «La huerta valenciana» Cuadernos de Pedagogía 172, 28-30 orr.

BATZU (1982); «Promoción de salud en la escuela infantil» Cuadernos de Pedagogía 89, 68-69 orr.

BIOSCA, M.; BURGUERA, R.; (1989); «La farmaciola a punt» Infancia 49, 41-43 orr.

BIRULES, M. (1988); «Mal d'esquena», Infancia 42, 36-38 orr.

- BIRULES, M. (1988): «Mal d'esquena», *Infancia* 42, 6-38 orr.
- BOTEY, J. (1980): «El niño alérgico», *Reforma de la escuela* 19, 25-26 orr.
- BRAS, J. (1985): «Meningitis. Qué cal fer.», *Infancia* 23, 37-39 orr.
- BRAS, J. (1980): «Nens, educadors, guarderia i salut», *Perspectiva escolar* 45, 11-13 orr.
- CAMINO, A. (1984): «El rèpos del nen», *Infancia* 17, 36-39 orr.
- CANALDA, G.; TORO, J. (1986): «L'istress a la primera infància», *Infancia* 31, 33-35 orr.
- CANDELA, M. (1981): «L'alimentació a l'escola bressol», *Perspectiva escolar* 54, 50-51 orr.
- CANTAVELLA, F. (1986): «Miscel·lània del nen malalt», *Infancia* 30, 32-35 orr.
- CARRIERE, J. (1987): «El xumet, un objecte a debat», *Infancia* 34, 36-37 orr.
- CARRIO, R. (1985): «Consideracions entorn als aliments», *Guix* 89, 31-35 orr.
- CASANOVAS, S.; MORENO, D.; (1985): «Instrument 'la boca'», *Infancia* 24, 63-36 orr.
- CASTELLO (1980): «La infección urinaria en el niño», *Reforma de la escuela* 21, 34-36 orr.
- CLOTET, A. (1985): «La càries dental», *Infancia* 26, 36-38 orr.
- COLS, C. (1989): «L'escola dels petits: un model d'educació cooperativa», *Infancia* 46, 10-12 orr.
- FALK, J.; DURAN, T.; (1989): «L'infant autònom (itzulita: El niño autónomo)», *Infancia* 46, 13-14 orr.
- FERNANDEZ, E. (1986): «EL desplaçament autònom inicial», *Infancia* 32, 33-36 orr.
- GAY, E.I. (1986): «El rentat de boca en els nens petits», *Infancia* 28, 37-40 orr.
- GOLDSBERGER, J. (1989): «Infants hospitalitzats», *Infancia* 51, 29-34 orr.
- GRIMALT, A. (1986): «Trastorns del son en el nen», *Infancia* 29, 33-37 orr.
- GRIMALT, A. (1986): «Riure i salut», *Infancia* 36, 33-36 orr.
- GUTIERREZ, M. (1986): «Aprender a respirar correctamente es vital para la salud infantil», *Comunidad escolar* 83, 9 orr.
- IBAÑEZ, Carmen (1989): «El niño de tres años en la escuela infantil», *Cuadernos de Pedagogía* 176, 26-28 orr.
- JIMENEZ, N. (1981): «L'alimentació a l'escola bressol», *Perspectiva escolar* 59, 7-11 orr.
- JUBERT, J. (1986): «Desenvolupament i aprenentatge del control vesical diürn», *Infancia* 29, 38-42 orr.
- MIR, C. (1988): «COnsideracions pedagògiques sobre l'alimentació a l'escola bressol». *Perspectiva escolar* 127, 27-32 orr.
- NOGUES, M. (1989): «El nen que no demana ateciò», *Infancia* 46, 7-9 orr.
- OBIOLS (1984): «Petits accidents», *Infancia* 20, 34-37 orr.
- ORTA, D. (1987): «La SIDA i els infants a l'escola», *Infancia* 36, 38-40 orr.
- ORTA, D. (1984): «El problema sanitari de la rubéola», *Perspectiva escolar* 81, 51-53 orr.
- PARCERISA, A. (1985): «L'alimentació del nen a l'escola», *Guix* 93, 75-76 orr.
- PEREZ, P. (1989): «El nen epilèptic», *Infancia* 47, 31-33 orr.
- PRANDI, F. (1984): «La febre», *Infancia* 21, 29-32 orr.
- PRANDI, F. (1987): «El nen asmàtic a l'escola», *Infancia* 35, 39-41 orr.
- QUER, P. (1985): «El menjador escolar», *Guix* 89, 19-23 orr.
- RAPISARDI, G.; DONZELLI, G.P.; (1989): «El son dels nens i les preocupacions dels pares». *Infancia* 50, 37-40 orr.
- REQUENA, C. (1987): «Maltractaments infantils», *Infancia* 37, 33-36 orr.
- RIERA, S. (1986): «Relaxació o la fase d'inspiració durant la parla», *Infancia* 32, 37-39 orr.
- RIPOLL, J. (1977): «Consideraciones sanitarias acerca del estado actual de las guarderías»; *Cuadernos de Pedagogía* 36, 6-7 orr.
- RIPOLL, J. (1984): «Nen, abriga't bé!», *Infancia* 16, 31-34 orr.
- SARIOL, M. (1989): «La salut mental del mestre», *Infancia* 40, 34-40 orr.
- SCOPESE, A. (1989): «Qualitat de vida dels infants a l'escola bressol», *Infancia* 49, 15-29 orr.
- SCHAFFER, R. (1989): «La millor manera d'educar», *Infancia* 51, 4-8 orr.
- SILVA, A. (1988): «L'hospitalització de l'infant», *Infancia* 41, 34-38 orr.
- SOLER, A. (1987): «Quan els nens tenen cura d'ells mateixos», *Infancia* 34, 38-39 orr.
- STOECKLE, R. (1985): «Maladies, maux de dents, docteurs et dentistes», *L'école maternelle* 6, 27-29 orr.
- TORMO, R. (1981): «Normas para la nutrición correcta del niño», *Reforma de la escuela* 31, 51-55 orr.
- TORO, J. (1988): «L'ansietat en la primera infància», *Infancia* 45, 32-34 orr.
- TORRES, S.; REINA, F.; (1985): «Consum d'alcohol a la infància», *Infancia* 25, 41-43 orr.
- VENTURA, N. (1984): «Membres inferiors del nen: alteracions i correccions ortopèdiques», *Infancia* 18, 29-32 orr.
- VERMEVILIN, H. (1985): «La nuit, le sommeil», *L'école maternelle* 0, 13-19 orr.
- VILARASAU, M.C. (1984): «L'esmorzar», *Infancia* 21, 33-35 orr.

EGUNEROKO KOADERNOA

GURASOEKIKO HARREMANEN ESPERIENTZI BAT HAUR-ESKOLETAN

EL CUADERNO DIARIO

Experiencia desarrollada en la Escuela Infantil de Oiartzun con niños de 0-3 años.

A través del diario de cada niño se establece una estrecha relación entre los padres y los educadores.

EGUNEROKO KOADERNOA. Gurasoekiko harremanen esperientzi bat Haur-Eskoletan

Haur-Eskolak, heziketarako zentruak izatearekin, bere baitan gurutzatzen diren hainbat giza instantzien bateratzea ematen dela esan behar dugu; hala nola Udaletxe, Guraso, Hezitzaile etabarrek daukaten eragina eta zerikusia gure zentruetako dinamika guztian: planifikazioa dela, gestioa, pedagogi erantzunkizuna etabar.

Lan honetan azaldu nahi dugun esperientzia, haurren inguruan guraso eta hezitzaileen arteko elkarrekin kokatuta dago. Urtean zehar, eta are gehiago, haurrek Haur-Eskolatan igarotzen duten denboraldi guztia kontutan hartuz gero, gurasoekiko harremanak modu ezberdinetatik bideratzen dira. Lehengo entrebistatik hasita, eskolaz aldatzeko azken bilera bitarte, ohizkoak diren bitartekoak erabiltzen dira, bai programazioak aztertzeko, ebaluaketak egiteko, zenbait gai aztertzeko etab.


Hau honela izanik eta modu batean beste heziketa zentruetan eraman den antzekoa, hemen azalduko dugunaren bereiztasuna eguneroko harremanetan datza, hau da, egunero egunero gurasoekin ezarrita daukagun harreman mota bat delako.

Guztiok dakigu 0-3 urte bitarteko Haur-Eskolek badutela hainbat berezi-

tasun heziketa arloko beste eskolekin konparatuz gero. Nabarmenena seguru aski, haurren adina da, baina bada go baita ere beste errealitate bat honen inguruan, alegia, hain haur tikiak familiako kontextutik kanpo hezitzea, mesedegarria gerta daitekeela ulertu ezina.

Haurra zenbat eta tikiagoa, orlutan eta gutxiago bikoizten da bere garapena, eskolan ematen diren prozesuak familian ematen direnen pareko gertatzen bait dira. Hau da, aprendizai guztiak, hizkuntzarena dela eta beste edozer, sozializazio prozesua dela, emozional heldutasuna etabar guztia, kontextu bateko eta besteko esperientziaz osatzen joaten delako. Modu honetan diogu osaketa honen ondorioz haurraren potentzialitateak hobetu eta biderkatu egiten direla.

Planteamendu honetatik abiatuz, ezinbestekoa dugu eguneroko elkarrekin hauek gauzatzeko bideak artikulatzea eta erabiltzen dugun bitarteko bat (eguneroko elkarrikustiaz kanpo) koaderno edo informazio idatzia da.



Kuaderno honetan jasotzen den informazioa zera da:

- a) Haurraren obserbatu den jokabidea. Orokorrean nola egon den, zein motatako harremanak eduki dituen, etab.
- b) Egin diren ariketen berri, azpimarragarrienak gutxienez eta haurraren jarrera ariketaren aurrean.
- d) Zenbait anekdota.
- e) Momentuan arduratzen duenaren berri.
- f) Elikadura, loa etab.

Koaderno honen helburua ez da haurraren ebaluaketa bat egitea, nahiz eta horretarako ere balio izan. Koadernoaren bitartez bilakatzen duguna haurraren eguneroko bizitzari jarraitzen zentzu bat ematea da. Modu batera eskolan egon den denbora, parentesi bat gerta ez dadin familiarentzat eta ahal den neurrian bizi dezala haurraren egon ez den tarte hori. Hau berdin planteatzen da alderantziz ere, hau da, eskolak etxeko bizitza ezagutzeko ere bai.

Zein abantaila bilatzen diogun koadernoaren erabilerari:

- Gurasoengan konfiantza eta segurtasuna sortzen du «soluzio txarrenetako onena» izatearen ideia hori gaintzen dutelarik.
- Haur tikiaren heziketa eta garapentaz hezitzeko baliagarria.
- Gertatutakoaren interesa sortzen duenez gero, elkarriketarako abiapuntu gertatzen da.
- Haurraren irakasleak daukan jarrera ebaluatzeko modu aproposa.
- Gela dinamikaren ebaluaketarako baliagarria, egin den lana aztertzerantz bul-tzatzen bait du.
- Ikasturtean zehar ematen den haurren garapeneko informazio iturri.

Azaroak 3

Kaixo izaskun. Egunero ilusio haundiarekin irakurtzen diñat koadernoan. Baina, beneran, egun hauetan inoiz baino gehiago disfrutatzen ari naun hire komentarioekin. Yehi ere ongi ikusten dut Otekin. Xahra ere lar dabil baba dariola. «Komunikazio» polita, jorben duan gure artean, geroz eta gehiago ulertzen duela nabarmena bait da.

Hau beste egunean idazten hasi da utzi egin nahi. Gaur goizean jarraitzen diñat. Baina (nola ez ba?) petala ez liti osteko. Aste bukarran ere jorbera berdinarekin ikusi dugu ongi, maja; baina apetito gutxi xamarrekin. Txupetea asko eskatu eta lar dabil albarrekin, mingainarekin eta lar dabil baba dariola.

Azaroak 6

Buztinarekin saio luze bat egin dugu eta ulertzen irakurtzen diñat koadernoan. Baina, beneran, egun hauetan inoiz baino gehiago disfrutatzen ari naun hire komentarioekin. Yehi ere ongi ikusten dut Otekin. Xahra ere lar dabil baba dariola. «Komunikazio» polita, jorben duan gure artean, geroz eta gehiago ulertzen duela nabarmena bait da.

Hau beste egunean idazten hasi da utzi egin nahi. Gaur goizean jarraitzen diñat. Baina (nola ez ba?) petala ez liti osteko. Aste bukarran ere jorbera berdinarekin ikusi dugu ongi, maja; baina apetito gutxi xamarrekin. Txupetea asko eskatu eta lar dabil albarrekin, mingainarekin eta lar dabil baba dariola.

Azaroak 7

Kaixo izaskun. Egunero ilusio haundiarekin irakurtzen diñat koadernoan, baina, beneran, egun hauetan inoiz baino gehiago disfrutatzen ari naun hire komentarioekin. Yehi ere ongi ikusten dut Malen. Xabier ere hor dabil baba dariola. «Komunikazio» polita sortzen dun gure artean, geroz eta gehiago ulertzen duela nabarmena bait da.

Hau beste egunean idazten hasi eta utzi egin nuen. Gaur goizean jarraitzen diñat, baina (nola ez ba?) presaka bi hitz esateko. Aste bukarran ere jarrera berdinarekin ikusi dugu ongi, maja, baina apetito gutxi xamarrekin. Txupetea asko eskatu din eta hor dabil ahoarekin, mingainarekin bueltaka tarteka. Bueno, «¡na más!». Egun ona izan, izaskun.

Azaroak 8

Kaixo izaskun. Egunero ilusio haundiarekin irakurtzen diñat koadernoan, baina, beneran, egun hauetan inoiz baino gehiago disfrutatzen ari naun hire komentarioekin. Yehi ere ongi ikusten dut Malen. Xabier ere hor dabil baba dariola. «Komunikazio» polita sortzen dun gure artean, geroz eta gehiago ulertzen duela nabarmena bait da.

Hau beste egunean idazten hasi eta utzi egin nuen. Gaur goizean jarraitzen diñat, baina (nola ez ba?) presaka bi hitz esateko. Aste bukarran ere jarrera berdinarekin ikusi dugu ongi, maja, baina apetito gutxi xamarrekin. Txupetea asko eskatu din eta hor dabil ahoarekin, mingainarekin bueltaka tarteka. Bueno, «¡na más!». Egun ona izan, izaskun.

- Gelako dinamika obserbatzera behar-tzen du eta era berean egin den lanaren erreflexioa egitera.

Sistema honi leporatu dakioken **desabantailarik haundiarena**, eskatzen duen denbora dela esango genuke. Gure Haur-Eskoletan sistema hau erabil badaiteke, taldeak ttikiak direlako dela garbi dago; hala ere, denbora eza dela medio, zenbait Haur-Eskoletan aurkitu duten soluzioa beste fitxa batzuk erabiltzea izan da. Fitxa hauetan informazioa mermatuagoa ematen da, baina hala eta guztiz ere, egunero erabiltzen dena izaten da.

Azkenean eta bukatzeko, koadernoan elkarrizketaren ordean erabiltzeko bitartekoa ez dela azpimarratu nahi genuke, hori horrela gertatuko balitz, garbi dago ez litzatekeela koadernoaren desabantaila izango, baizik eta erabilera desegokiaren ondorioa.

Oiartzungo

Iturburu Haur-Eskolan

jasotako adibidea

Hauraren adina 21 hilabete t'erdikoa da.

(Gurasoak):

Azaroak 3

Kaixo izaskun. Egunero ilusio haundiarekin irakurtzen diñat koadernoan, baina, beneran, egun hauetan inoiz baino gehiago disfrutatzen ari naun hire komentarioekin.

Nik ere ongi ikusten dut Malen. Xabier ere hor dabil baba dariola. «Komunikazio» polita sortzen dun gure artean, geroz eta gehiago ulertzen duela nabarmena bait da.

Hau beste egunean idazten hasi eta utzi egin nuen.

Gaur goizean jarraitzen diñat, baina (nola ez ba?) presaka bi hitz esateko. Aste bukarran ere jarrera berdinarekin ikusi dugu ongi, maja, baina apetito gutxi xamarrekin. Txupetea asko eskatu din eta hor dabil ahoarekin, mingainarekin bueltaka tarteka. Bueno, «¡na más!». Egun ona izan, izaskun.

(Irakasleak):

Azaroak 6

Buztinarekin saio luze bat egin dugu eta lehengo txandan bezalaxe Malen aspertzin

ez, azkena izan da jasotzen. Denbora gehien puskatzen pasa du baina tarteka halako irudi antzekoak ateratzen zitzaizkion eta erakutsi egiten zidan. zoloa, tamaina eta pisuaz oartzeko oso bitarteko polita da eta Malenen eskuko indarra lantzeko ere bai, zeren buztin plana baten gainean behatzez marrak egiten aritu gara eta noski, estutu egin behar. Bestelako ariketak eguneroak: Enkajeak direla, ipuin ikusteak, dantzak, abestiak eta horrela. Gure «panel»ean abere ttiki batzuk jarri ditugu eta obserbazioa zehazteko politak.

Jan pasable. Pure bukatu ez, bainan ia dena. Gero oilasko piska bat. Kaka biguina.

Azaroak 7

Malen oso ongi, e? Betiko moduan pasa du goiza. Gauza asko eskatu, hori bai. Berak nahi duen kanta abestu behar dugu, isiltzea edo aldatzea nahi duenean, aldatu eta horrela, «haciéndose valer» esaten den bezala, baina nekatua edo negarti-petrala, ez. Mailoaren jokoa zela eta, koloreak lantzen aritu gara. Lau kolore ezberdineko bolak bere leketan inongo zailtasunik gabe jantzen ditu, badaki gainera koloreen izenak eta hor aritzen da txuria, roxa, urdina... esan eta esan. Askotan aritzen zarete etxean, ala? Irati da bestea horrela piska bat konturatzen hasia dena, bainan gaine-koak oso urruti oraindik. Bazkaria ongi egin du. Bainak, arraia eta mandarina ale batzuek. Kaka ona. Egiten hasi orduko esaten du, bainan lasaitasun gutxiki, larrituta bezala, eskapatuko balio edo ez dakit. A! Orinala oraindik ez du onartzen.

Azaroak 8

Gaur estreineko Arraskura igo garela eta pozik haraino joateko beta eduki dugulako. Malen nolnahi ere ez da oso lasai egon; leku harrotza, behi marraka haundia eta ez zuen sartu ere egin nahi ukiulora. Azkenean besoetan eta kostata. Gero ongi egon da. Joan etorria ongi egin du, bai malda igo eta jeisterakoan eta baita ibilaldia bera ere. Azkenean nekatua.

Oso ongi bazkaldu du. Pure eta haragia patatakin.

Kaka mindu xamarra eta ipurdia pittin bat gorritua. Ahoa ere nehiko haunditua dauka, letagin aldea behintzat.

EGOKITZAPEN ALDIA HAURRESKOLAN

Esperientziaren kokalekua:

MIGUEL DE CERVANTES Ikastetxe Publikoa
GASTEIZ

Ikasturtea: 1989-90

Aurkezleak:

Edurne Aranburu Aranberri
Primitiva del Pozo Garcia

LA ADAPTACION A LA ESCUELA

Las autoras de este artículo explican su experiencia de inicio del curso con los niños de tres años: objetivos, diseño del proyecto, organización de la clase, secuenciación de la integración de los niños, participación de la Escuela, evaluación.

PROIEKTUAREN JATORRIA

Hiru urtetako haurren ikasgela bat lehenengoz bere ardurapean hartu behar duen maistra batek, ikasturtearen hasiera arretaz prestatu beharra sentitzen du, baita haurrak eskolara egokitzeko prozesu horretan gurasoei parte harterazi beharra ere.

Hiru urtetakoen geletako bi irakasleak proiektua prestatzeaz arduratzen dira, gero Eskolako Klaustroak bere onospena ematen diolarik.

PROIEKTUAREN FASEAK

1. Aurretiko datuak:

Gasteizko «Miguel de Cervantes» ikastetxe publikoa O.H.O.ko zentru bat da, A eta B ereduak dituena. Eskolaurreko (3-6 urtekoen) 6 unitaterekin eskola esparruko eraikin berezi batean. Hiru urtetakoen kurtsoan 32 haur daude, bi ikasgela elkarren ondoan eta bi maistra dituztelarik.

2. Helburuak:

- Haurrak eskolara egokitzeko prozesuan gurasoei parte harteraztea, berauen eta seme-alaben herstura edo antsietatea murrizteko.

- Eskolara sartzeko eta bertan egoteko ordutegiak egokitzea, abandonu-sentimentua arintzeko.

- Haurren masifikazioa ekiditea, bakoitzaz errazago arduratu ahal izateko.

- Espazioak, materialak eta iharduera-sekuentziak behar bezala antolatzea, haurrentzako segurtasun-esparru bat sortzeko.

3. Proiektuaren diseinua:

* Eskolara sartzeko eta bertan egoteko ordutegiak

1. eguna:

- 1. txanda (16 haur)

- 2. txanda (16 haur)

- Txanda bakoitzeko aitak edota amak ikasgelan geratzen dira seme-alabekin, maistrekin batera.

2. eta 3. egunak:

- Haur guztiak 9'30etatik 12etara

- Aitak eta amak ikasgelan egoten dira seme-alabekin (ordu batez 1. egunean eta ordu erdiz 2. egunean), maistretariko batekin.

4. eta 5. egunak eta 2. astea:

- 9etatik 12etara, sarrera-ordua malgua delarik 9etatik 10etara.

- Gurasoak ikasgelaraino etortzen dira haurrekin eta gero joan egiten dira.

3. eta 4. asteak:

- Ordutegi normalizatua, goizez eta arratsaldez. Gurasoek ikasgelaraino laguntzen diete haurrei.

Urritik aurrera, bakarrik sartzen dira haurrak eskolara.

* Ikasgelaren antolamendua (espazioak eta materialak)

Ikasgelako espazioa jolastoki bihurtzen da bere osotasunean, bertan zenbait jostailu dagoelarik sakabanatuta (panpinak, eraikuntzak, kartoizko kaxak...). Geroago, txokoak edo iharduera-zonak sortuko dira gelan, bakoitza bere materialarekin.

* Iharduera-sekuentziak

1., 2. eta 3. egunetan:

1/ Hurrei harrera.

Eranskailu edo pegatina banaketa, nori bere izenez (1. eta 2. egunetan)

Eskolako gela eta lokalen bisita (1. egunean)

2/ Jolasa ikasgelan bertan (2. eta 3. egunetan)

3/ Jolasa patioan.

4/ Saio kolektiboa ikasgelan: «sorpresa» kaxa, abestiak, jokuak.

Gurasoak etxeratzeko agurra (2. eta 3. egunetan).

5/ Jolasa patioan.

6/ Saio kolektiboa ikasgelan: ipuina eta gurasoei harrera eta etxeratzeko agur indibidualizatua.

Hilaren gainerakoan:

Inolako aldaketarik gabe aurreko sekuentzia horri jarraitzen zaio urratsez urrats.

* Ikastetxearen laguntza

Lehen egunetan, Eskolako atsedeen-orduak egokitu egiten dira eta gainerako irakasleek ere hiru urtetakoen maistrei laguntzen diete une puntual jakin batzuetan eta patioan.

* Gurasoen parte hartzea

Ikasturtea hasi aurretik gurasoekin bilera bat izatea funtsezkotzat jotzen da, haurren egokitze-prozesuan inplikarazteko ahalegina egiten delarik bilera horretan:

- Hurrek izango dituzten irakasleak ezaguterazten zaizkie.

- Eskolako gelak eta lokalak erakusten zaizkie.

- Batez ere, lehen 3 egunetako -eta oro har, hil osoko- ordutegien eta iharduera-planaren berri ematen zaie orri batean.

- Elkarrizketa sortzen da ondorengo puntu hauei buruz:

• Etxetik eskolara pasatzeak berekin dituen eragozpenak, bai haurrentzat, baita gurasoentzat ere: abandonatze eta abandonatua izatearen sentimenduak, ingurune ezagun batetik (segurtasuna, konfiantza...) beste ezezagun batera (segurtasun eza, mesfidantza...).

• Elkarrekiko uste on edo konfidantza beharra: «Zuek haurra uzten diguzue (guk ez dizuegu kentzen) eta guk hartu egiten dugu (ez dizuegu kentzen) eta banaka, indibidualki, laguntzen diegu».

• Aitak, amak edo berauen konfidantzako pertsona helduren batek eramaten du haurra gelaraino, baita gero leku beretik jaso ere, konfidantza transmitituz. Lehen hiru egunetan, Eskolan geratzen da ordutegian ezarritako denboran eta maistrei laguntzen die hurrek zenbait iharduera burutu ditzaten.

• Eskola heziketa-lekua da eta ez «garaje» bat. Haurra nortasunaren alderdi guztien garapena lortu nahi da. Adin honetan, jolas eginez ikasten du haurrak. Bere buruaren segurtasun eta autonomian aurrera egin dezala lortu behar da.

• Hurrek lehen egunetan izan ditzaketen erreakzioak: beldurra, segurtasun eza, kasketaldiak, okadak edo botagura, amesgaiztoak, jangura gutxiago, gauzez eta egunez pix egitea...

• Heldu edo nagusien jarrera garai honetan: «Zubia» izan behar dute etxearen eta eskolaren artean, haurrari konfidantza eta segurtasuna emanaz: hitz egin behar diote haurrari eskolaz eta maistrei buruz, lehen aipaturiko erreakzio edo sintoma horien aurrean ulerker agertu behar dute, eragozpenak gainditzen lagundu, diren bezala -eta ez gustatuko litzaiekeen bezala- onartuko dituzte...

• Ikasgela haurren gauzez hornitzen dugula, segurtasuna emateko: etxetik ekarritako kuxinak, aldatzeko arropak, txabusina edo bata eta esekitokia nork bere ikurraz, norberaren jostailuak, ikasgelako maskota..

* Ebaluazioa

Haur bakoitzari ikusten dizkion erreakzioak hartzen ditu idatziz maistra bakoitzak, gero beren artean komentatu eta jokabide egokienak aurkitzen saiatzeko.

*(Artikulu hau gazteleratik itzulia izan da).

IHAUTERIAK



Bideo sail hau hiru kapituluz osatuta dago. Hirurok IHAUTERIA dute gaitzat.

Hiruretan Euskal Herriko zenbait herritan nola ospatzen den ikusten da: antzezpenak, mozorroak, dantzak, abestiak. Erdiko eta Goiko Zikloko haurrei zuzenduta daude, berauen bi

dez, Euskal Herriko ohiturak ondo ezagutzeko aukera edukiko dutelarik.

Beste kontestu batzutan, herrietako jaietan, dantzaldietan esate baterako, entzundako eta ikusitako pertsonaiak: «Tunturroak», «Maskaradako Dantzariak», «Atorrek», «Markitos»; abestiak eta dantzak beren sorterrian kokatzeko aukera edukiko dute hurrek.

Informazio iturri izatetik aparte, bideo hau zenbait ekintzaren euskarri bihur dezakegu. Gida didaktikoan adibide batzuk agertzen dira.

PITIREN ABENTURAK-2 (GAZTAGILE, EZTIGILE, OGIGILE)



PITIREN ABENTURAK 1 seriea bezalaxe, PITIREN ABENTURAK 2 hau ere ez da besterik gabe ikusteko serie bat; ikasgelan ekintzak sortarazi nahi ditu. Informazio ematea besterik ez dute egiten hiru filme hauek.

Berauek ikusi «aurretik» eta «ondoren» zer egiten den: horretan datza berauen balioa eta aprobetxamendu-maila.

Azken batean, ez dute dokumental huts izan nahi, ez dute ikustea baino trazedentzia didaktiko handiagorik gabekoak izan nahi.

Filme hauek didaktikoki aprobetxatzeko zenbait ildo estrategiko aurkeztuko dugu Gida Didaktikoan. Funtsezkoa iruditzen zaigun ideia baten inguruan elkarlotzen dira estrategia hauek: PITI GAZTAGILE, PITI EZTIGILE eta PITI OGIGILE ez dira berauek helburu, zenbait ikaskuntza bultzatzeko baliabide baizik. Ikaskuntza horietan «zer» sartu, «noiz» eta «nola» egin, irakasleak erabaki behar du, eta halaber, berak baloratu behar du filmeok zenbateraino balio dioten bere irakaslanean laguntzeko.

AHOZKO HIZKUNTZA LANTZEKO SALGAI DAUDEN HAINBAT JOSTAILU

1. LOTERIA DE FRUTAS (La Guaira) LOTERIA DE LAS COSAS (La Guaira)



• Hiztegia lantzeko egokiak.

2. LOTOS SONOROS (Escuela, Animales...) (La Guaira)

• Entzumena lantzeko proposak.



3. SECUENCIAS LOGICAS DE FOTOS (Nathan, Abacus)

• Eguneroko bizitzako egoerak direlako aukera egokia ematen dute, ez bakarrik gertatzen denaz hitzegiteko, baita pertsonaiek esaten dutena ikasteko ere.

4. GRANDES IMAGENES PARA REIR (Nathan, Abacus)

• «Las tres mellizas»en bidez eguneroko egoerak aurkezten dira. Egoerak barregarriak dira.

5. GRANDES IMAGENES PARA HABLAR (Nathan, Abacus)

• Abiapuntua eguneroko bizitza da. Egoera bakoitzak umeekin behatzeko, hitz egiteko, adierazpen-mota ezberdinak lantzeko... aukera ematen du.

6. YO ME VISTO

(Serie roja, serie azul), (Nathan, Abacus)

• Jolas hauek gorputz atalak eta jantzi-mota ezberdinak lantzen dituzte.

7. HAU JANARIA! - MENUDA COMIDA


(Eroski Jolasak)



• Janariak lantzen ditu. Jolas honek taldean jolasteko aukera ematen eta eskatzen du.

8. TALLER DE CUENTOS (Nathan, Abacus)

• Karten bidez, ipuinetan agertzen diren pertsonaiek, objektuak lantzea posibilitatzen dute, baita kartzet baliatuz ipuinak konta tzea ere.



DOKUMENTAZIO ZENTRUA (0-7 urte)

IRAKASLE ESKOLA

Escuela Universitaria del profesorado. Tel. 790440

ESKORIATZA (Gipuzkoa)